



PRENTSA OHARRA

2026ko Lesakako VII. Mendi Lasterketarako 50 dortsal gehigarri eskuragarri

Heldu den **martxoaren 15ean, igandea, 2026ko Lesakako VII. Mendi Lasterketa** ospatuko dugu, azken urteetan mendi lasterketen egutegian finkatu den hitzordua, eta inguruko eta Euskal Herriko lasterkariak gogoz espero dutena. Horren adierazle da urtarrilaren 2an eskuragarri jarritako **300 dortsalak** urtarrilaren 25ean **agortu** zirela. Itxaron zerrenda ireki genuen gero eta hori ere betetzen joan da azken asteetan. Beti Gazte elkarteko zuzendaritza taldean egoera hausnartu ondotik, bertze **50 dortsal saltzea** erabaki dugu.

Izen-emateak www.kronoak.com atariaren bitartez egin beharko dira orain arte bezala, **2026ko martxoaren 13ko 12:00ak arte, edota dortsalak berriz ere agortu arte.** Kasu honetan, itxaron zerrenda irekiko da berriz ere. Dortsala bueltatzeko epea martxoaren 7ra arte egonen da irekia. Azken 50 dortsal hauek eskuratzen dituztenek, ez dute ziurtatua izanen eskatzen duten kamisetaren taila, eskaera egina dagoelako dagoeneko. Ibilbideari, ordutegiei eta araudiari buruzko informazio guztia **S.D.R.C. BETI GAZTE K.J.K.E.** klub antolatzailearen webgune ofizialean ere kontsultatu ahal izanen da.

Beti Gaztetik kirolzale guztiak animatzen ditugu **mendi lasterketen jai honetan parte hartzera**, bai bere burua gainditu nahi dutenentzat, baita ingurune pribilegiatu batean kirolaz gozatu bertzerik nahi ez dutenentzat. Bide batez, **eskerrak eman** nahi dizkiegu aurtan ere ibilaldi hau egitea ahalbidetzen duten **babesle, laguntzaile eta boluntario guztiei**. Haien konpromisoa eta ahaleginak funtsezkoak dira hazten jarraitzeko eta kalitatezko proba bat eskaintzeko.

Martxoaren 15ean ikusiko dugu elkar Lesakan! Ez geratu dortsalik gabe!



NOTA DE PRENSA

50 dorsales más disponibles para Lesakako VII. Mendi Lasterketa 2026

El próximo **domingo 15 de marzo por la mañana** se celebrará la VII. edición de la **Lesakako Mendi Lasterketa**, una cita ya consolidada en el calendario de carreras de montaña y muy esperada por los amantes por todos los corredores de nuestros alrededores, así como de toda Euskal Herria. Indicador de esto ha sido lo pronto que **agotasteis los 300 dorsales** que pusimos a vuestra disposición el 2 de enero. En escasos 25 días tuvimos que abrir la lista de espera, que también se ha ido llenando en las últimas semanas. Por ello, después de analizar la situación, desde la junta directiva de Beti Gazte hemos decidido poner disponibles **50 dorsales** más.

Las **inscripciones seguirán disponibles a través del portal www.kronoak.com** y permanecerán así **hasta el 13 de marzo a las 12:00, o hasta que los dorsales se agoten**. En este caso, abriremos de nuevo la lista de espera. El plazo para dar de baja alguna inscripción acabará el 7 de marzo. Quienes adquieran estos últimos 50 dorsales no tendrán asegurada la talla de la camiseta, ya que estas están encargadas. Toda la información relativa al recorrido, horarios y normativa también podrá consultarse en la web oficial del club organizador **S.D.R.C. BETI GAZTE K.J.K.E.**

Desde Beti Gazte animamos a toda la ciudadanía aficionada al deporte a **participar en esta fiesta del monte**, apta tanto para quienes buscan superarse como para quienes simplemente quieren disfrutar del deporte en un entorno privilegiado. Queremos aprovechar para **agradecer sinceramente a todos los patrocinadores, colaboradores y voluntarios y voluntarias** que, un año más, hacen posible la celebración de esta marcha. Su compromiso y esfuerzo son fundamentales para seguir creciendo y ofreciendo una prueba de calidad.

¡Nos vemos el 15 de marzo en Lesaka! ¡No te quedes sin tu dorsal!

En Lesaka a 10 de febrero de 2026